

## IN MEMORIAM

# Joan Coromines

MIKEL BELASKO

1997ko urtarrilaren 2an, 91 urte zituela, hil zen Joan Coromines i Vigneaux filologo katalana.

Hurrengo lerroetan bere lanik garratzitsuenak aipatuko ditugu eta, batez ere, euskal filologiarekin lotuak daudenak, horietako batzuk *FLV* aldizkari honetan bertan argitaratuak.

### BIOGRAFIA PROFESIONALA

1928. urtean jadanik Ramón Menéndez Pidal eta Américo Castro hizkuntzalari ezagunekin harremanetan zegoen. Urte bat geroago Zurich-en ikasi zuen eta 1930. urtean Parisen. 1931ean doktore izateko Aran Haraneko hizkera aztertzen zuen *Vocabulario Aranés* aurkeztu zuen eta urte horretan bertan Filología Erománikoko irakasle dugu Bartzelonako unibertsitatean. Gerra ondoren herbestera joan behar izan zuen, Parisa aurrena eta Argentinako Cuyo-ko Unibertsitera (Menéndez Pidal eta Amado Alonso nafarrak emandako bultzadari esker) gero. 1948. urtean Chicagon irakasle izendatu zuten eta hor iraun zuen jubilatu artean.

Letra katalanen ohorezko saria hartu zuen 1984ean eta Letra españiarren sari nazionala 1989an. Gainera Euskaltzain ohorezkoa izendatua izan zen 1994ean.

### OBRA NAGUSIA

Dudarik gabe hiru dira bere lanik importanteenak: *Diccionario crítico etimológico de la lengua castellana*, *Diccionari etimològic i complementari de la Llengua Catalana* eta *Onomasticon Cataloniae*.

**Diccionario crítico etimológico de la lengua castellana.**

1954-57 urteetan argitaratu zen lau aletan. 1980-1991 urteetan zabaldu

zuen (sei ale oraingoan) José A. Pascualen laguntzarekin eta izen berria eman zioten: *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico*. Bada gainera hiztegi honen bertsio laburtua, ale bakarrekoan: *Breve diccionario etimológico de la lengua castellana*.

Izenburuak dioen bezala bertan gazteleraezko hitzen etimoak aztertzen dira. Aho batez onartzen da gaztelararen arazo etimologikoei, eta are gainerako hizkuntza eta dialekto hispanikoenei ere, irtenbidea aurkitzeko tresnarik era-ginkorrena dela.

Lan izugarria eta ezinbestekoa, baita euskal filologoentzat ere euskarari buruzko hainbat eta hainbat aipamen egiten direlako.

Koldo Mitxelenak hiztegi hau eredutzat hartu zuen gaur Euskaltzaindia ateratzen ari den *Orotariko Euskal Hiztegirako*.

#### **Diccionari Etimològic i complementari de la Llengua Catalana.**

1980-88 urteetan argitaratua, J. Gulsoy eta M. Cahner-ekin elkarlanean.

Aurrekoan bezala hitzen etimologiak aztertzen dira baina beste modu batera. Aipagarria da, esate baterako, lehenengo pertsonan idatzita dagoela.

#### **Onomasticon Cataloniae.**

Katalanez mintzo diren herrialde guzietako toponimia biltzea beti izan zen Joan Corominasen ametsa. 1930. urtean hasi zen eginkizun horretan, ordurako inuesta toponimikoak burutuak baitzituen Maresme eskualdean.

Esan bezala bilketa horretan gaurko muga administratiboak gainditu zituen eta hizkuntza hartu zuen abiapuntu eta xede:

“L’Onomasticon Cataloniae el vaig començar al Maresme l’any 1930. Ara ja tinc enquestats tots els territoris de parla catalana, i fins i tot molts més dels seus voltants. Vaig acabar a la vall del Roncal, a Navarra”. (*Onomasticon Cataloniae. I. Toponímia antiga de les illes Balears*. 1989)

Hil baino zenbait aste lehenago *Onomasticon Cataloniae*-ren azken alearen zuzenketan ziharduen.

Orain arte lehenbiziko lau aleak argitaratu dira: *Onomasticon Cataloniae. Els noms de lloc i noms de persona de totes les terres de llengua catalana*. Vol I, *Toponímia antiga de les illes Balears*; Vol. II *A-BI*; Vol. III *BI-C*; Vol. IV *D-J*; Barcelona, 1989, 1994, 1995, 1996.

#### **EUSKAL GAIAK**

Erromanistarik haundienetako bat izan den Joan Coromines luze eta sakinon arduratu da euskal gaiez.

Hona hemen euskari buruzko lanen zerrenda:

*Elements pre-romans del domini catalá*, in *Actes del VII Congrés International de Lingüística Romànica*, 1953, II, 108-132 eta gero in *Estudis de Toponímia Catalana*. I, 67-91.

Gallorsa i Galleuda, in *Archivum*, Oviedo, IV, 1954, 11-18. Gero in *Estudis de Toponímia Catalana*, II, 175-193.

*Toponimie d'Andorra*, in *Recueil de travaux offerts à M. Clovis Brunel*, 1955, I, 288-310.

Gero in *Estudis de Toponímia Catalana*, II, 5-42.

*La toponymie hispanique pré-romane et la survivance du Basque jusqu'au moyen âge. Phénomènes de bilinguisme dans les Pyrénées Centrales*, in *VI Congrès International de Toponymie et d'Anthroponymie*. Munchen, 1958, I, 105-146. Bertsio eta izen berritua in *Estudis de Toponímia Catalana*. I, 93-151: *La survivance du Basque jusqu'au moyen âge. Phénomènes de bilinguisme dans les Pyrénées Centrales*.

*Miscellània de topònima bascoide a Catalunya*, in *Estudis de Toponímia Catalana*. I, 153-217.

“Saso”, “Sarda”, “Seix”, *voices topográficas de substrato*, *Papeles de Son Armadans*, XXXIX, 1959, pp. 291-310. Gero in *Estudis de Toponímia Catalana*, II, 195-205.

*Hurgando en los nombres vascos de parentesco*. FLV, 1970, II, 12, 169-182. Gero in *Tópica Hespérica*, II, 312-333.

*De topónimia vasca y vasco-románica en los Bajos Pirineos. La acentuación de los antiguos nombres vascos según nos la revelan sus correspondencias bearneñas y las demás romanizadas*, in FLV, 1972, IV, 12, 299-319.

*El origen del nombre de Gistáu, del de Odén y de otros nombres de lugar conexos*, in *Tópica Hespérica*, II, 334-345. Katalanezko jatorrizko bertsioa 1971ean Pau Vilari eskeinitako omenaldian.

*Breves notas vascorrománicas a propósito de la fonética de Michelena*, in *Tópica Hespérica*, II, 293-311.

*Dos notas epigráficas*, in FLV, 1973, V, 13, 5-20.

Azpimarratzeko da euskal toponomastikari eskainitako arreta. Corominesen aipatu lanak funtsezkoak dira behialako euskararen zabaleraz gehiago jakiteko. Hain zuen ere berak frogatu du euskara, edo hizkuntza honen antzerako hizkerak, Erdi Aroan, oraindik ere, mintzatzen zela Kataluñako ipar-mendebaldeko haran menditsuetan. Ikusi bestela gain honi buruz zuen segurtasuna nola isladatzen den *Notas epigráficas* lanaren atal baten izenburuan: “*Una inscripción en vasco ribargozano del siglo I con dos ideogramas*”.

Horrez gain jakintsu katalanaren ukitua nabaria da *Orotariko Euskal Hiztegian*, Manuel Agud eta Antonio Tovar-en *Diccionario Etimológico Vasco* eta Jusko Mokoroaren *Ortik eta emendik* euskal lokuzioak biltzen dituen liburuau.

Ez da harritzeko beraz Euskaltzain ohorezkoia izendatua izatea 1994.ean.

## BESTELAKOAK

Idatzitako guzia agortu gabe hona hemen beste liburu garrantzitsu batzuk:

- *Vocabulario aranés*. Tesis doctoral, 1931.
- *Estudis de Toponímia Catalana*. Barcelona, 1965-1970.
- *Juan Ruiz. Libro de Buen Amor*. Madrid, 1967.
- *Lleures y converses d'un filòleg*. Barcelona, 1971.
- *Tópica Hespérica. Estudios sobre los antiguos dialectos, el substrato y la toponimia romances*. Madrid. 1972.
- *Diaris i records de Pere Coromines*. Barcelona, 1974-75.

-*Entre dos llenguatges*. Barcelona, 1976-77. (Coromineses bibliografiari buruz gehiago jakin nani duenak hemen du Max Cahner-en hitzaurre intsegarria: “Notes bibliogràfiques sobre l’obra de Joan Coromines”.)

-*Cerverí de Girona. Lírica*. 1988.

-*Cerverí de Girona. Narrativa*. 1985.

Ezin konta ahal artikulu idatziz zituen zenbait aldizkari espezializatuetan. Hona hemen euskararekin, zeharka bada ere, nolabaiteko lotura dutenak:

-*Etimologies Araneses, Butlletí de Dialectologia Catalana*, XIII (1925)

-*A propos d’un nouveau livre sur le gascon, Vox Romanica*. II.

-*Dis Aup i Pirenèu, à propos du Räisches Namenbuch*, in *Festschrift Jud*, Zürich 1943.

-*Los Nombres de la Lagartija y del Lagarto en los Pirineos, Revista de Filología Hispánica* V.

-*Du nouveau sur la toponymie occitane: Recherches sur les nombs de lieux préromans de Languedoc et de de Gascogne*, in *Beitr. z. Namensforschung*, VIII, 1973, pp. 193-308.

-*Elementos prelatinos en las lenguas romances hispánicas: el testimonio de la toponimia y el léxico residual*, in *Actas del I Coloquio sobre lenguas y culturas prerromanas de la Península Ibérica*, Salamanca, 1976.

IRUÑA, 97-III-11.